

**2347/2019 EBAZPENA**, 2019ko azaroaren 12koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana. Haren bidez, onartu egiten da Instagram sare sozialaren bitartez zientziari eta teknologiari buruzko argazkien #UPNAInvestiga lehiaketa egiteko deialdia, baita dagokion gastua baimendu ere.

Ikusirik Kultura Zientifikoaren Unitateak egindako proposamena, Komunikazio Atalak ontzat eman duena, eta Datuak Babesteko gaietarako ordezkariaren berrikuspena.

Ikusirik Aholkularitza Juridikoaren txostena.

Ikusirik Kontabilitate Atalak kreditua badela ziurtatzeko emandako egiaztagiria eta Unibertsitatearen kontu-hartzaitzak egindako fiskalizazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen 40. artikuluan esleituta dauzkadan eskumenak betez,

#### EBATZI DUT:

Lehenbizikoa.- Onestea Instagram sare sozialaren bitartez zientziari eta teknologiari buruzko argazkien #UPNAInvestiga lehiaketa egiteko deialdia, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan atxiki diren oinarri eta inprimakiekin bat etorriz.

Bigarrena.- Ebazpen honek sortutako gastua onestea, 300 euro osotara. Diru kopuru hori 30.5200.0610.480.05 “Beste transferentzia batzuk” izeneko partidaren kargura ordainduko da. Lehen saria 150 eurokoa izango da, eta 75 euro emango zaizkie accesita lortzen duten bi lehiakideei. Sari horien zenbatekoa lan errendimendutzat jotzen da, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 71. artikuluan ezarritako taulari eta jarraibideei jarraituz lortuko da atxikipen ehunekoak.

Hirugarrena.- Ebazpen hau aditzera ematea Unibertsitate Proiektioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzari, Esku-hartzaitzari, Komunikazio Atalari, Kontabilitate Atalari eta Aurrekontuen Atalari.

Laugarrena.- Agintzea argitaratu daitezela ebazpen hau eta eranskinak egoitza elektronikoan (Prozeduren katalogoan, atal hauetan: Ikasleak / Bekak, laguntzak eta sariak; Irakasle eta ikertzaileak / Orokorrak; eta Administrazioako eta Zerbitzuetako langileak / Orokorrak) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta, haren aurka, zilegi da berraztertze errekurtsoa aurkeztea, hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Epaitegietan, bi hilabeteko epean,

ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoaren eta Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Ramón Gonzalo García  
ERREKTOREA

## ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO #UPNAINVESTIGA ARGAZKI LEHIAKETA INSTAGRAM SARE SOZIALAREN BITARTEZ

Errektoreak emandako 2019ko azaroaren 12ko **2347/2019** Ebazpenaren I. eranskina.

### Lehenbizikoa – Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea zientziari eta teknologiar buruzko argazkien #UPNAInvestiga lehiaketa arautzea da. Argazkiak Instagram sare sozialean argitaratu beharko dira, eta aipamena egin beharko zaie NUPi (@upna.nup) eta ekimenean laguntzaile den Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioaren Zientziarako eta Teknologiarako Espainiako Fundazioari (@fecyt\_ciencia). Parte-hartzaileek, gainera, beren argazkiaren izenburua eta azalpen labur bat idatzi beharko dituzte.

### Bigarrena – Finantzabidea

Deialdi honek 300 euroko aurrekontua du osotara. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2019ko gastuen aurrekontuko 30.5200.0610.480.05 “Beste transferentzia batzuk” izeneko partidaren kargura ordainduko da, eta sariak ordaintzeko erabiliko da.

### Hirugarrena – Izangaiek bete beharrekoak

Deialdian Nafarroako Unibertsitate Publikoko komunitateko kideek har dezakete parte, hau da, 2019. urtean titulazio ofizialen batean matrikulatutako ikasleek, irakasle eta ikertzaileek, Administrazio eta Zerbitzuetako langileek, adiskide eta ikasle ohientzako Alumni programako kideek, Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegiko ikasleek, Unibertsitateak eskainitako titulu berekietako ikasleek eta Esperientziaren Gelako ikasleek. Horretarako, epaimahaiak saria eman diela jakinarazten dien unean talde horietakoren batekoak direla egiaztatu beharko dute saridunek.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Instagramen duen profilaren jarraitzaile egin beharko dira parte-hartzaileak (@upna.nup).

### Laugarrena – Sarien modalitateak

Sari hauek emango dira:

- Lehen saria, **150 eurokoa**, eta dibulgazio zientifikoko liburu sorta bat.
- Bi accesit, bakoitza **75 eurokoa**, eta dibulgazio zientifikoko liburu sorta bat.

### Bosgarrena – Lehiaketaren iraupena

2019ko azaroaren 20ko 00:00etatik eta 2019ko abenduaren 10eko 23:59ra bitarte egingo da lehiaketa.

### Seigarrena – Parte hartzeko mekanika

Parte-hartzaileek argazki bat jarriko dute Instagram sare sozialean, zientziarekin eta/edo teknologiarekin lotutako edukia eta #UPNAInvestiga *hashtag* edo traola dituen, eta aipamena egin beharko diete Nafarroako Unibertsitate Publikoari (@upna.nup) eta Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioaren Zientziarako eta Teknologiarako Espainiako Fundazioari (@fecyt\_ciencia). Argazkia Instagrameko argitalpen batean partekatu beharko da (eta ez *story* batean), eta izenburu bat eta

edukiaren azalpen labur bat jarri beharko zaio. Testuak gaztelaniaz zein euskaraz idatz daitezke. Irudia garbi egon beharko da, emotikonorik eta testurik gabe.

Lehiakide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezteko aukera izango du. Berak eginak izan beharko dira, originalak eta beste lehiaketaren batean saritu gabekoak.

Honako ezaugarri hauek edukiko dituzte lehiaketara aurkeztutako argazkiek:

1. Lehiaketaren antolatzaileek proposatutako gaiekin bat etorri behar da argazkia.
2. Zilegi da argazkia digitalki editatzea.
3. Ez da onartuko pertsonen duintasunari eraso egiten dion argazkirik, ezta modu nabarmenean desatsegina edo iraingarria denik ere.
4. Argazkien gutxieneko tamaina hauetako bat izan behar da: 1080 x 1350 pixel, 1080 x 1080 pixel edo 1080 x 566 pixel.

Unibertsitateak eskubidea izango du lehiaketarako aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa bat antolatzeko. Horri begira, erakusketa egiteko beharrezkoak diren eskubide guztiak laga direla ulertzen da. Horregatik, lehiaketa bukatzean, antolatzaileek zilegi izango dute parte-hartzaileei eskatzea argazkiak elektronikoki eta kalitate onean bidal ditzatela.

Argazki sarituak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jabetzakoak izatera pasako dira, eta Unibertsitateak beretzat gordeko du haiek erakutsi eta zabaltzeko eskubidea.

### **Zazpigarrena – Sarituen betebeharrak**

1. Saridunek jasotzen duten diru kopurua nahi bezala erabiliko dute, eta 2019ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zaie.
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, araudi indardunak ezartzen duenarekin bat, behar diren atxikipenak egingo ditu sarien diru kopuruan zerga modura. Sari horien zenbatekoa lan errendimendutzat jotzen da, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 71. artikuluan ezarritako taulari eta jarraibideei jarraituz lortuko da atxikipen ehunekoa.
3. Deialdiko oinarriak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzurrik egiten bada, indargabetu egingo da saria. Hala gertatzen denean, sariagatik hartutako dirua itzuli beharko du irabazleak.

### **Zortzigarrena – Sarien epaimahaia**

Honako hiru kide hauek osatutako epaimahaiak erabakiko du sariak nori eman: Epaimahaiburua Joaquín Sevilla Moróder izango da, NUPeko Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzako Kulturaren eta Dibulgazioaren Arloaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona. Epaimahaikide, halaber, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Komunikazio Ataleko bi teknikari arituko dira.

### **Bederatzigarrena – Balorazio irizpideak**

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat parte-hartzaileak baloratzeko garaian:

- 1.- Lehiaketa honen xede diren zientziari eta/edo teknologiari buruzko ideia bat adierazteko sormena.
- 2.- Ideia hori aurkezteko originaltasuna.
- 3.- Argazkiaren izenburuaren eta azalpenaren doitasuna: aditua ez den publikoarentzat egokia den dibulgazio hizkeran idatzi behar dira.

### **Hamargarrena – Sariak emateko prozesua**

1. Epaimahaiak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari bidaliko dio sariak emateko proposamena, lehiaketaren helburuak betetzeari eta aurkezpenen kalitateari buruzko txosten arrazoituarekin batera. Errektoreak behin betiko ebazpena emango du, eta, bertan, sariak emateko erabakia eta saritutako izangaien zerrenda ezagutaraziko ditu.
2. Zilegi da sariak eman gabe uztea epaimahaiaren iritziz egin behar bada edo izangairik ez badago.
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen behin betiko ebazpena, sariak emateari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean emango da argitara. Halaber, Unibertsitate Proiektzio, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetza ebazpenari ahalik eta zabalpen handiena ematen saiatuko da. Interesatuak, ebazpen honen aurka, zilegi dute berraztertze errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

### **Hamaikagarrena – Sari banaketa**

Sariak emateko jendaurreko ekitaldi bat egingo da zehazten den egunean, sariak emateko behin betiko ebazpena argitaratu ondoren betiere. Saritutako lehiakideek berek edo, etortzerik ez badute, haien ordezkariak joan behar dute sariak banatzeko ekitaldira. Saritutako lehiakidea edo bere ordezkaria sariak banatzeko ekitaldira joaten ez bada, sari hori eman gabe utzi dela aldarrikatuko da automatikoki, eta dagozkion ondorio ekonomikoak izango ditu horrek.

### **Hamabigarrena – Eskubideen lagapena**

Deialdi honen babesean saritzen diren argazkiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jabetzakoak izango dira. Horrek esan nahi du saridunek laga egiten dutela lan sarituak edozein formatutan argitaratzeko eskubidea, hedatzeko edo ustiatzeko eskubidea edo beste edozein eskubide, eta ez dutela eskubiderik arrazoi horregatik lansaririk, ordainsaririk edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko.

Saritua izateak egile-eskubideak lagatzea dakar, egileen eskubide moralak galarazi gabe.

Unibertsitateak beretzat gordeko du lehiaketara aurkeztutako argazkiak bere webgunean eta sare sozialetan argitaratzeko eskubidea.

### **Hamahirugarrena – Oinarrien onarpena**

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak ezagutu eta onartzea dakar berekin. Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetza izango da oinarri hauek aplikatzen sor daitezkeen zalantzak argitzeko organo eskuduna, eta bere erabakia apelaezina izango da.

### **Hamalagarrena – Argitalpena**

Deialdi honen oinarriak Unibertsitateak publizitaterako dituen hedabideetan jarriko dira (Prozeduren katalogoan, atal hauetan: Ikasleak / Bekak, laguntzak eta sariak; Irakasle eta ikertzaileak / Orokorrak; eta Administrazioako eta Zerbitzuetako langileak / Orokorrak).

Deialdi hau aplikatzeko emandako gainerako egintzak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratuko dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratzea izango da deialdi honetako epeak eta tramiteak betetzeari begira kontuan hartuko den publizitate ofizialeko tresna bakarra. Dena dela, modu osagarri eta ez ofizialean, interesdunei posta elektronikoaren bidez edo beren ikasle eta ikertzaileen artean ahalik eta zabalpen handiena lortzearen Nafarroako Unibertsitate Publikoak egokien jotzen duen tokian edo bitartekoaren bidez ere egin litezke jakinarazpenak.

### **Hamabosgarrena – Datuen babesa**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa da datuen tratamendurako arduraduna. Horregatik, bete egin behar ditu bai Datuak Babesteko EBko Erregelamendu Orokorra (DBEO) eta bai Datu Pertsonalak babesteari eta Eskubide Digitalak bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Deialdi honen ondoriozko datu-tratamenduen helburua kultura zientifikoaren dibulgazioan oinarritzen da, hau da, interes publikoko helburu batean, Unibertsitatei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 41. artikulua eta DBEOren 6.1.e) artikulua araberak.

Ezarrizko tratamenduen arabera tratatu beharreko datuak honako hauek dira: deialdi honetako parte-hartzaileek Instagram sare sozialean partekatutako nortasuna, profila edo beste datu batzuk, aurreko oinarriaren azken tartekiaren arabera esku hartu behar dutenen helbide elektronikoa, eta sarituak izan direnen kontu korronteko zenbakia edo bestelako ordainketa-datuak.

Deialdian parte hartzen dutenek beren ardurapean hartzen dute Instagramen argitaratzen dituzten beste pertsona batzuen irudi, metadatu eta datuei buruzko tratamendua.

Bestalde, parte-hartzaile horiei jakinarazten zaie beren datuen eta Instagramen partekatzen dituzten beste pertsona batzuen datuen tratamendua sare sozial horretan zehaztutako baldintzen mende egongo dela: <http://bit.ly/2pmm66s>.

Ezarrizko datu-tratamenduei buruzko informazio gehiago eska dezakezu [servicio.comunicacion@unavarra.es](mailto:servicio.comunicacion@unavarra.es) helbide elektronikoa. Halaber, gai horren inguruan dituzun eskubideak baliatzeko, mezu bat bidal dezakezu [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es) helbide elektronikora.

Parte-hartzaileek Instagramen irudiak edo beste datu batzuk ezabatu nahi badituzte edo beste norbaitek irudiak edo beste datu batzuk ezabatzeko eskaera bidaltzen badie, parte-hartzaile horiek Instagramen duten profilaren bidez eskatu ahal izango dute zuzenean. Gai horrek legez NUPi eragiten badio, aztertu egingo du komeni ote den aipaturako horiek guztiak ezabatzea eta ahalegin teknologikoak egitea.

### **Hamaseigarrena – Errekurtsoak**

Interesatuek, deialdi honen eta bere oinarrien aurka, zilegi dute berraztertzeko errekurtsua aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.